



es en fr 2009ko urtarrilaren 13a

Saioa hasi Erregistratu

RSS PODCAST



Bilatu...



HASIERA MUSIKA ZINEMA LITERATURA ARTEA BERTSOLARITZA ALBISTEAK

EITB.COM

ireki

KULTURA

Argazkiak eta poesia

Bernardo Atxaga eta Gabrielle Duplantierren "ikuspegi goxoak"



Erredakzioa - Publikatua 2009/01/11 | eitb.com |

Argazkilariak eta idazleak bat egin dute eta jaioterriaz mintzo zaizkigu. Erakusketa ibiltari hau Bilboko Fnacen dugu hilaren bukaera arte.



Ikuspegi goxoak. Argazkia: Gabrielle Duplantier.

Bernardo Atxaga eta Gabrielle Duplantierrek, "Ikuspegi Goxoak" izenburupean, argazki erakusketa prestatu dute. Bertan argazkilari gaztearen lanak modu berezian uztartu dituzte, Alliances Françaises eta Fnaci esker Espainia osoan barna bidaiatuko duen erakusketan.

Grabielle Duplantier eta Bernardo Atxagak euren sorterrria dute hizpide: Euskal Herria. Bernardo Atxagaren Poemas & híbridos (Madril, 1990) liburutik hartutako poesiek Grabielle Duplantier argazkilariaren mamu-munduaren interpretazio berezia egiten dute.

Poesiak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez aurkeztu dituzte, hiru hizkuntza hauen bidez elkarlotutako kulturen jarraikortasuna azpimarratu eta muga-herrialde honen balore

unibertsala nabarmentzeko.

Atxaga eta Duplantierren erakusketa urtarrilaren 31 arte izango da Bilboko Fnacen. Ordutegia: astelehenetik larunbatera goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara.

Ezagutzera eman Bozketak ☆☆☆☆☆ Emaita ☆☆☆☆☆

0 boto

Sartu zure komentarioa

[Albisteak](#) | [Kirolak](#) | [Eguraldia](#) | [Iratia](#) | [Telebista](#) | [Gaztea](#) | [Betizu](#) | [Kultura](#) | [Zerbitzuak](#) | [On egin](#) | [Euskara](#) | [EITB](#) | [Komertziala](#) | [EITBko produktuak](#)

[Bideoak](#) | [Galeriak](#) | [Infografiak](#) | [Blogak](#) | [Foroak](#) | [Agenda](#) | [Kontaktua](#) | [Web mapa](#) | [Podcast](#) | [Rss](#)

Bilatu...

